

BIZIA AUPADA BAT DA, ARPEGI EMOIOZU

Bene benetan, bizia dei bat da. Begiratu sendira, mendira, ikastetxera, soloetara, itxasora, eguroletara, burdiñoletara ta danak daukaguz deika; euren aupadea estua ta arduratsua da sarri askotan.

Lurrean sortu izan dan gauz eder ta oiñarrizkoenatariko bat sendia da. Biziaren berezko izaerak, laguntasun-bearrak, odolak ta gurasoen seme-alabakanako ta seme alaben gurasoenganako garra-murak eskatzen dau alkarrekin bizi izatea. Gurasoen maitasun-leia euren semeengana doa, odola deika dago; gurasoen biziaren bizi dira.

Lengo aldi baten, aize aldi bat izan zan, komunismoaren izenean sendia austea nai izan eban putskeria. Sendia ausi ta giza-seme-alabak estatua-ren otsein ipintea nai izan zan... Gaur, berezko legearen aurka ta estatua-ren aldeko morrontza ori nai ebenen bidea, ankaz gora ta buruz bera, lurpera joan da.

Aurretiko beste era bateko nauskeriak, sendia ausi ta estatua goratu nai izateko bide gaiztoari sorrera emon eutson, baiña giza-asmabide orrek ezin izan dautsoe geiagorik egin biziaren berezko legeari. Ta bejon daiola bizitzaren zuzentasunari...!

Sendia, zure zeregiña, aundia ta bakana da lurrean. Ori dala-ta, zure aupadeak, beti, deadar egingo dau gizartean. Ta zuk ezarriko dautsazu gatza biziari bere oiñarrizko sor-lekuan.

Beste bizitzaren aupada bat mendia da. Izan bere, nork ez dau nai mendira joatea, aize osasuntsuaz bizia indartzea ta poza biotzari emotea...? Mendiaren egala lirain dago egun-sentian, itxaso

aldetik urrezko bola baten argia sortzen danean, ta arrats-beran, eguzkia, geldi geldika, ditzizari, itxasora doanean.

Mendiaren bizia deika dago ta ederra opaka. Ederraren ederrez, ator ator, dirausku ta lurraren mamiñez, gizontasunez landu ba-nagizu, aritzik sendo ta lerdenenak ta fruturik gozoenak emongo dautzudaz. Izan bere, gure arbasoak, ondo nekattuta, atxurrez, landu zituen Euzkadiko lurraldeak, zugatzez, ondo joriturik.

Biziaren aupada eder bat ikastetxera be bado. Giza semeak lurra landu bear eban biotz eta adimenaren bidez. Almen eder bi onek, ordu onean, artu zituan giza-semeak gizadiaren bizia argitu ta zuzentasunez aztertuteko.

Bizia, gaztetasuna, indarra dira zugatz sendoaren sustraiak, baiña gazte leiñargia, jakituriaren sustraia jakintsuen argi ta oarikasia artzea da. Ortarako sortu izan ditue gizon ikasiak jakinkizun ikastegiak... oldartu ta arpegi emoiozu zure barnean dozun argi txinta orri, eguzki urre biurtu dedin gizadiaren bizi barrirako.

Argitik eta biotzetik sortu bear da lur barria ta bizi ohea, gizadi ederrago bat gizon zentzundunen alkartasunean sortu dedin emen, lurrean. Buru ta biotzdunen zorra da, argitasun ta biotzez gizadiko txirotasuna ta negarra ibitu ta anaien arteko bazkun bakezkoa sortu ta gozartutea.